

**SOTA FAMILIAREN ARTXIBOA EUSKADIKO ARTXIBO  
HISTORIKOARI DOHAINTZAN EMATEKO EKITALDIA  
ACTO DE DONACIÓN DEL ARCHIVO DE LA FAMILIA SOTA  
AL ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI**

2023-03-27 Bilbao 27-03-2023

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, Batzar Nagusietako Presidente, Foru Diputatuak, herri agintari eta ordezkariok, Sota familikideok, jaun andreok, arratsalde on!

Agur berezia eta eskerrik beroenak eman behar dizkiet, aurrenik, Sotatarren familiartekoei. Adar ugari ditu familiak, horietako asko ditugu gaur hemen ordezkatuta. Guztiei ongi etorri, eta guztiei gure esker ona!

Gure herriaren historian izugarri emankorra izan da Sota familiaren ekarpena. Enpresan, industrian eta politikan erabakigarria izan den familia honek erbestean bukatu zuen, exiliaturik, zigortuta. Arrazoia? Euskal gizartearekin euskal gizartearekiko, euskal politikarekin, euskal politikarekiko eta, hitz batean, demokraziarekiko erakutsi zuten konpromisoa.

Historia luze eta emankor horren mugarrak jasotzen ditu familiaren artxiboak. Familiaren artxiboek, esan behar dugu, familia-artxibo hura zatietan banatu baitzen, beraiek esan duten bezala.

Gaur, horietako zati bat, bereziki garrantzitsua, aurkeztu digute Euskadiko Artxibo Historikoan. Familiak hemen laga du, gordea, zaindua, aztertua izan dadin. Historiagileen, ikertzaileen eta euskal gizarte guztiaren eskura egon dadin.

Depositare un archivo privado en una institución pública es un acto de generosidad. Depositarlo aquí, en el Archivo Histórico de Euskadi, es un gesto de confianza. Confianza en este archivo, en su naturaleza pública, en su referencialidad y en su rigor profesional.

El archivo familiar se fragmentó como consecuencia del castigo y el expolio que sufrieron por parte del régimen franquista. Ahora, poco a poco, se está recuperando, con un esfuerzo compartido por la propia familia, las y los investigadores e historiadores.

Agradezco a Eugenio Ibarzabal su labor para poner en valor la importancia de recuperar la memoria de las y los descendientes de don Ramon de la Sota.

El Archivo Histórico de Euskadi se compromete a trabajar en colaboración con las demás instituciones depositarias, Diputación Foral de Bizkaia y Fundación Sabino Arana, para recomponer el archivo que la Guerra civil y el franquismo rompieron en pedazos.

Esta es una cuestión de patrimonio histórico y es, también, una cuestión de memoria democrática, de justicia democrática.

Artxiboen arteko loturak, konexioak eta osagarritasuna bilatzea premiazkoa da kasu honetan. Beti da beharrezkoa. Kulturaren beste alorretan bezala, agiritegietan sistema baten moduan lan egin behar dugu. Elkar hartuta eta gizarteari begira. Auzolanean.

En realidad, todos los archivos guardan “fragmentos”. Documentos diferentes, fragmentos de vida personal, laboral o política, que hay que relacionar, contextualizar, interpretar y valorar. Sólo así adquieren significado.

Esa labor corresponde a las y los especialistas, profesionales del archivo y la historia, que recomponen, basándose en la certeza de esas piezas documentales, la historia, las historias, de una comunidad y de un País.

El Archivo Histórico de Euskadi es, cada vez más, el referente principal en el patrimonio documental de Euskadi. Es más que un repositorio de documentos. Los archivos son herramientas fundamentales para la investigación y la historiografía, también para promoverla.

Ez dut zalantzarik. Sotatarren artxiboa jasotzea bide horretan jarraitzeko suspergarri berri bat da.

Eskerrik asko bada, berriro ere, Sota familiarekin batera, Eugenio Ibarzabal bezalako historiagileei eta Artxiboko profesionalen lan bikainari.

Ramon de la Sota eta bere senitartekoak gogoan, eskerrik asko denoi!